# Beste Iragarki Ofizial Batzuk

## GARRAIO ETA HERRI LAN SAILA


IRAGARKIA, Lurreko Garraioak Antolatzeko uztailaren 30eko 16/1987 Legean ezarritakoa hausteagatik irekitako zigor-espedienteen gaineko ebazpen-proposamenak jakinarazteko dena. 6381

IRAGARKIA, Lurreko Garraioak Antolatzeko uztailaren 30eko 16/1987 Legean ezarritakoa hausteagatik zigor-espedienteak irekitzen dituzten Garraio eta Herri Lan sailburuordearen ebazpenak jakinarazteko dena. 6383


# Xedapen Orokorrak

## INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

### Zk-1703

58/2001 DEKRETUA, martxoaren 27koa, merkataritzagune handiak ezarri, aldatu eta handitzekoa.

Euskal Autonomia Estatutuak (3/1979 Lege Organikoak onartua) 10.27 artikuluan ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen esklusiboa barne merkataritzaren arloan. Hala ere, kontuan izan behar da prezio politika, ondasunen zirkulazio librea eta eskumenaren defentsari buruzko legedia.

Estatutuko aurreikuspenen hori garatzeko, Eusko Legebiltzarrak Merkataritza Jarduerari buruzko 7/1994 Legea onartu zuen. Lege horretan lehen aldiz ekin zitzaion Euskal Autonomia Erkidegoan merkataritza azalera handiak ezartzeko baldintzak arautzeari. Lege hori garatzeko 82/1995 eta 5/1998 Dekretuak eman ziren, urtarrilaren 31n eta urtarrilaren 20an, hurrenez hurren. Haien eragin nagusia izan da gure inguruko merkataritza banatzearen modernizazioaren lehenengo hedapenaldiari babes ematea.

Duela gutxi, azaroaren 10eko 7/2000 Legeak 7/1994 Legea aldatu du zati batean. 7/2000 Legeak egiten duena da merkataritza banaketako sistemen garapena arautzeko bigarren fase bat aurreikusi, eskaintza egon-

# Otros Anuncios Oficiales

## DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS


ANUNCIO por el que se notifican las Propuestas de Resolución de los expedientes sancionadores abajo indicados, en relación a infracciones de la Ley 16/1987, de 30 de julio, de Ordenación de los Transportes Terrestres. 6381

ANUNCIO por el que se notifican las Resoluciones del Viceconsejero de Transportes y Obras Públicas, incoatorias de los expedientes sancionadores abajo indicados, en relación a infracciones de la Ley 16/1987, de 30 de julio, de Ordenación de los Transportes Terrestres. 6383


# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

### N°-1703

DECRETO 58/2001, de 27 de marzo, sobre implantación, modificación y ampliación de grandes establecimientos comerciales.

El Estatuto de Autonomía del País Vasco, aprobado por Ley Orgánica 3/1979, establece en su artículo 10.27 la competencia exclusiva de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de comercio interior, sin perjuicio de la política de precios, la libre circulación de bienes y la legislación sobre defensa de la competencia.

En desarrollo de la previsión estatutaria fue aprobada por el Parlamento Vasco la Ley 7/1994, reguladora de la Actividad Comercial, en la que se abordaba por primera vez en el ámbito vasco la regulación de las condiciones de implantación de las llamadas grandes superficies comerciales. En desarrollo de la citada ley fueron dictados los Decretos 82/1995, de 31 de enero, y 5/1998, de 20 de enero, cuya principal virtualidad ha sido la de haber dado cobertura a una primera fase expansiva en la modernización de la distribución comercial de nuestro entorno.

Recientemente la Ley 7/1994 se ha visto parcialmente modificada por la Ley 7/2000, de 10 de noviembre, que afronta la regulación de una segunda fase del desarrollo de los sistemas de distribución comercial partien-

kortzetik abiatuta eta Euskal Autonomia Erkidego osorako merkataritza ekipamendu maila egokia lortu ondoren. Izan ere, horrek gaien eskaintza bermatzen du, kalitate, aukera, zerbitzu, prezio eta ordutegi aldetik baldintza onetan, betiere gaur egungo egoeraren arabera, eta txikizkako merkataritzaren garapen eta modernizatze joerekin batera.

7/2000 Legea garatzen duen Dekretu honek lau kapitulu bereizi ditu merkataritzagune handiak ezartzeko baldintzak arautzeko. Batetik, «merkataritzagune handi» zer den definitzen du; bestetik, lizentziak emateko prozedurak ezartzen ditu; hirugarrenik, lizentziak iraungitzeko edo ezeztatzeko baldintzak ezartzen ditu; eta, azkenik, Merkataritzagune Handien Batzorde bat sortzen du.

Ondorioz, Eusko Jaurlaritzaren Aholku Batzorde Juridikoarekin bat, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak martxoaren 27ko bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

## I. KAPITULUA
## MERKATARITZAGUNE HANDI BATERAKO LIZENTZIA

*1. artikulua.–* Merkataritzagune handia.

1.– Merkataritzagune handitzat joko dira ondokoak:

a) 5.000 biztanletik beherako zuzenbidezko biztanleria duten udalerrietako txikizkako merkataritzarako establezimenduak, baldin hasi zirenetik, edota handitzeen ondorioz, jendearentzako salmenta esparrua 400 $m^2$-koa edo handiagoa badute.

b) 5.000 eta 10.000 biztanle arteko zuzenbidezko biztanleria duten udalerrietako txikizkako merkataritzarako establezimenduak, baldin hasi zirenetik, edota handitzeen ondorioz, jendearentzako salmenta esparrua 800 $m^2$-koa edo handiagoa badute.

c) 10.001 eta 24.999 biztanle arteko zuzenbidezko biztanleria duten udalerrietako txikizkako merkataritzarako establezimenduak, baldin hasi zirenetik, edota handitzeen ondorioz, jendearentzako salmenta esparrua 1.000 $m^2$-koa edo handiagoa badute.

d) 25.000 biztanletik gorako zuzenbidezko biztanleria duten udalerrietako txikizkako merkataritzarako establezimenduak, baldin hasi zirenetik, edota handitzeen ondorioz, jendearentzako salmenta esparrua 2.000 $m^2$-koa edo handiagoa badute.

do de la estabilización de la oferta, una vez alcanzado para toda la Comunidad Autónoma un adecuado nivel de equipamiento comercial, que garantiza una oferta de artículos en condiciones de calidad, variedad, servicio, precios y horarios conforme con la situación actual y con las tendencias de desarrollo y modernización del comercio al por menor.

Al objeto de desarrollar la Ley 7/2000, el presente Decreto aborda en cuatro capítulos la regulación de las condiciones de implantación de los Grandes Establecimientos Comerciales, definiéndolos, estableciendo el procedimiento de otorgamiento de las licencias, las condiciones de su caducidad o revocación, y la creación de una Comisión de Grandes Establecimientos Comerciales.

En su virtud, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco, a propuesta del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 27 de marzo de 2001,

DISPONGO:

## CAPÍTULO I
## LICENCIA DE GRAN ESTABLECIMIENTO COMERCIAL

*Artículo 1.–* Gran establecimiento comercial.

1.– Tendrán la consideración de gran establecimiento comercial:

a) En los municipios con una población de derecho inferior a 5.000 habitantes aquellos establecimientos comerciales destinados al comercio minorista que, en su implantación o como consecuencia de ampliaciones posteriores, tengan una superficie de venta al público igual o superior a los 400 $m^2$.

b) En aquellos municipios con una población de derecho comprendida entre 5.000 y 10.000 habitantes aquellos establecimientos comerciales destinados al comercio minorista que, en su implantación o como consecuencia de ampliaciones posteriores, tengan una superficie de venta al público igual o superior a los 800 $m^2$.

c) En aquellos municipios con una población de derecho comprendida entre 10.001 y 24.999 habitantes aquellos establecimientos comerciales destinados al comercio minorista que, en su implantación o como consecuencia de ampliaciones posteriores, tengan una superficie de venta al público igual o superior a los 1.000 $m^2$.

d) En aquellos municipios con una población de derecho superior a 25.000 habitantes aquellos establecimientos comerciales destinados al comercio minorista que, en su implantación o como consecuencia de ampliaciones posteriores, tengan una superficie de venta al público igual o superior a los 2.000 $m^2$.

2.– Merkataritzagune handitzat hartuko dira beti azaroaren 10eko 7/2000 Legeak aldatu zuen maiatzaren 27ko 7/1994 Legeko (Merkataritza Jarduerarena) 13. artikuluko 3. paragrafoan azaltzen diren txikizkako saltokiak.

3.– Ez dira merkataritzagune handitzat hartuko azaroaren 10eko 7/2000 Legeak aldatu zuen maiatzaren 27ko 7/1994 Legeko (Merkataritza Jarduerarena) 13. artikuluko 4. paragrafoan azaltzen diren saltokiak.

*2. artikulua.–* Salmenta esparrua.

Jendearentzako salmenta esparrutzat hartuko da pertsonen joan-etorrirako, jeneroa erakusteko, erosteko eta ordaintzeko eta kutxen ilarara arteko azalera, kutxen ilara barne.

Gainera, jendearentzako salmenta esparrutzat joko dira merkataritza jarduerari zuzenean lotutako zerbitzu osagarriak emateko guneak.

Ez dira salmenta esparrutzat joko, egiteko, konpontzeko, ekoizteko eta gordetzeko zerbitzuen esparruak, baldin eta jendearentzako sarbiderik ez badute.

Izaera kolektiboko establezimenduetan ez dira jendearentzako salmenta esparrutzat hartuko aisialdirako eta errestauraziorako guneak edota merkataritzaguneetara sartzeko korridoreak, betiere haietan merkataritza jarduerarik egiten ez bada.

*3. artikulua.–* Merkataritzagune handi baterako lizentzia.

Merkataritza lizentzia eskatu beharko da azaroaren 10eko 7/2000 Legeak aldatu zuen maiatzaren 27ko 7/1994 Legeko (Merkataritza Jarduerarena) 13. artikuluko 1. paragrafoan azaltzen diren kasuetarako.

*4. artikulua.–* Merkataritza arloko Eusko Jaurlaritzako sail eskudunarentzako jakinarazpena.

Azaroaren 10eko 7/2000 Legeak aldatu zuen maiatzaren 27ko 7/1994 Legeko (Merkataritza Jarduerarena) 13. artikuluko 6. paragrafoan azaltzen diren kasuetan, nahitaez jakinarazi beharko zaio merkataritza arloan eskuduna den Eusko Jaurlaritzako sailari.

*5. artikulua.–* Lizentziak emateko irizpideak.

1.– Azaroaren 10eko 7/2000 Legeak aldatu zuen maiatzaren 27ko 7/1994 Legeko (Merkataritza Jarduerarena) 13. artikuluko 5. paragrafoan xedatutakoei jarraiki emango edo kenduko dira merkataritzagune handietarako lizentziak.

Ondorio horietarako, merkataritzako ekipamendu egokitzat joko da biztanleriarentzat, eta epe ertainerako aurreikusitako biztanleriarentzat, kalitate, aukera, zerbitzu, prezio eta ordutegi baldintza egokiak dituz-

2.– Tendrán en todo caso la consideración de gran establecimiento comercial aquellos comercios minoristas a los que se refiere el apartado 3 del artículo 13 de la Ley 7/1994, de 27 de mayo, de la Actividad Comercial, modificada por la Ley 7/2000, de 10 de noviembre.

3.– No tendrán dicha consideración aquellos establecimientos comerciales a los que se refiere el apartado 4 del artículo 13 de la Ley 7/1994, de 27 de mayo, de la Actividad Comercial, modificada por la Ley 7/2000, de 10 de noviembre.

*Artículo 2.–* Superficie de venta.

Se entenderá como superficie de venta al público aquella destinada al tránsito de personas, exposición, adquisición y pago del género, así como la superficie comprendida hasta la línea de cajas, incluyendo esta última.

También serán consideradas superficie de venta al público las zonas destinadas a prestar servicios complementarios directamente relacionados con la actividad comercial.

Quedan excluidas de este concepto aquellas superficies destinadas a los servicios de elaboración, reparación, producción y almacenaje, cuando no dispongan de acceso al público en general.

En los establecimientos de carácter colectivo no serán considerados como superficie de venta al publico los espacios de ocio, restauración y pasillos de acceso a las áreas comerciales, siempre que en ellos no se lleven a cabo actividades comerciales.

*Artículo 3.–* Licencia de gran establecimiento comercial.

Deberá solicitarse licencia comercial en aquellas supuestos establecidos en el apartado 1 del artículo 13 de la la Ley 7/1994, de 27 de mayo, de la Actividad Comercial, modificada por la Ley 7/2000, de 10 de noviembre.

*Artículo 4.–* Comunicación al Departamento competente en materia de comercio del Gobierno Vasco.

Cuando se den los casos previstos en el apartado 6 del artículo 13 de la Ley 7/1994, de 27 de mayo, de la Actividad Comercial, modificada por la Ley 7/2000, de 10 de noviembre, se deberá efectuar la preceptiva comunicación al Departamento competente en materia de comercio del Gobierno Vasco.

*Artículo 5.–* Criterios de otorgamiento.

1.– El otorgamiento o la denegación de las licencias de gran establecimiento comercial se acordará conforme a lo previsto en el apartado 5 del artículo 13 de la Ley 7/1994, de 27 de mayo, de la Actividad Comercial, modificada por la Ley 7/2000, de 10 de noviembre.

Se entenderá, a estos efectos, por adecuado equipamiento comercial aquel que garantice a la población existente y, en su caso, a la prevista a medio plazo, una oferta de artículos en condiciones de calidad, variedad,

ten gaien eskaintza bermatzen dutenak, betiere dagokion eskualdeko egungo egoera eta txikizkako merkataritzaren garapenaren eta modernizazioaren joerak kontuan izanda.

2.– Eskualde bakoitzari jendearentzako gehieneko salmenta esparrua ezarriko zaio merkataritzako establezimendu handiaren bidez. Halaber, kontuan hartuko dira artikulu honetako 3. paragrafoan jasotako motak eta sektoreak.

3.– Edonola ere, I. eranskinean jasotako eskualdeen eremurako, merkataritzagune handietarako azalera eskuragarria ezingo da izan formula hau aplikatzean lortzen den emaitza baino handiagoa: eskualde bakoitzeko legezko biztanleria bider mota edo sektore bakoitzarentzat ezarritako koefizientea (metro kuadro biztanleko), eta horri kendu egin beharko zaio eskabidea egiten den unean okupatuta edo baimenduta dagoen azalera.

Ondoko koadroan ezartzen dira egon daitekeen eskariaren gaineko partaidetzaren ehunekoak, eta mota eta sektoreen gehieneko azaleraren koefizienteak:

Elikagai establezimenduak eta balioanitzak.

– 400 eta 999 metro koadro bitarteko azalerako establezimenduak: partaidetzaren %18 edo 0,108 $m^2$/biztanleko.

– 1.000 eta 2.499 metro koadro bitarteko azalerako establezimenduak: partaidetzaren %13 edo 0,070 $m^2$/biztanleko.

– 2.499 metro koadro baino gehiagoko establezimenduak: partaidetzaren %29 edo 0,135 $m^2$/biztanleko.

Azalera espezializatuak.

– Etxerako ekipamendutarakoak, besteak beste, etxerako produktuak, hornidurakoak, etxetresna elektrikoak eta etxerako ehun ekipamendua saltzekoak: partaidetzaren %45 edo 0,078 $m^2$/biztanleko.

– Ekipamendu pertsonalekoak, besteak beste, arropak, oinetakoak eta osagarriak saltzekoak: partaidetzaren %45 edo 0,065 $m^2$/biztanleko.

– Kiroletakoak, besteak beste, kirol materiala, kirol arropa, kirol oinetakoak eta osagarriak saltzekoak: partaidetzaren %45 edo 0,015 $m^2$/biztanleko.

– Brikolajekoak, besteak beste, eraikuntzarako materialak, burdindegiko elementuak, eta lorezaintza, osasun, iturgintza eta elektrizitate elementuak saltzekoak: partaidetzaren %45 edo 0,020 $m^2$/biztanleko.

Ezarri edo handitu nahi den merkataritza establezimenduaren jendearentzako salmenta esparrua 800 metro koadro baino handiagoa ez bada, aurreko koadroko ehunekoak dagokion udalerriaren lurralde eremuari aplikatu ahal izango zaizkio.

servicio, precios y horarios, conformes con la situación actual y con las tendencias de desarrollo y modernización del comercio al por menor, en la comarca afectada.

2.– A cada comarca se asignará una superficie máxima, de venta al público, por medio de gran establecimiento comercial, según las tipologías y sectores recogidos en el apartado 3 de este artículo.

3.– En todo caso la superficie disponible para grandes establecimientos comerciales, en el ámbito de cada una de las comarcas recogidas en el anexo I, no podrá superar la resultante de aplicar la población de derecho de cada una de las comarcas, por el coeficiente indicado, $m^2$ de superficie por persona, para cada una de las tipologías y sectores, menos la superficie ocupada y autorizada en el momento de la solicitud.

Los porcentajes de participación sobre la demanda potencial y los coeficientes de superficie máxima por tipologías y sectores se establecen en el cuadro siguiente:

Establecimientos de alimentación y polivalentes:

– Establecimientos con superficie comprendida entre 400 y 999 metros cuadrados: 18% de la participación o 0,108 $m^2$/habitante.

– Establecimientos con superficie comprendida entre 1.000 y 2.499 metros cuadrados: 13% de la participación o 0,070 $m^2$/habitante.

– Establecimientos con mas de 2.499 metros cuadrados: 29% de la participación o 0,135 $m^2$/habitante.

Superficies especializadas:

– De equipamiento del hogar, dedicadas a la venta entre otros de productos para el hogar, artículos de menaje, electrodomésticos y equipamiento textil para el hogar: 45% de la participación o 0,078 $m^2$/habitante.

– De equipamiento personal, dedicadas a la venta entre otros de artículos de vestido, calzado y complementos: 45% de la participación o 0,065 $m^2$/habitante.

– De deportes, dedicadas a la venta entre otros de material deportivo, prendas deportivas, calzado deportivo y complementos: 45% de la participación o 0,015 $m^2$/habitante.

– De bricolaje, dedicados a la venta entre otros de materiales de construcción, elementos de ferretería, jardinería, sanitarios, fontanería y electricidad: 45% de la participación o 0,020 $m^2$/habitante.

Cuando el gran establecimiento comercial que se quiera implantar o ampliar no supere los 800 metros cuadrados de superficie de venta al público, los porcentajes señalados en el cuadro anterior se podrán referir al ámbito territorial del municipio respectivo.

Urtarotik urtarora turismoan gorabehera handiak dituzten udalerrietan (II. eranskina), aurreko paragrafoan azaltzen den jendearentzako salmenta esparrua 1.500 $m^2$-koa izango da. Gainera, biztanleria bolumena bikoiztu egingo da, eskualdean izan daitekeen eskaria kalkulatzeko.

4.– Eskaintzaren eta eskariaren konkurrentzia askea bermatzearen ondorioetarako, merkataritza arloan merkataritzagune handiei lizentzia emateko edo ezeztatzeko ebazpena egiteko eskumena duen sailak bereziki balioetsi beharko du ondoko hau: dagokion eskualdean, zuzenean edo zeharka, eskatzailearen titulartasunpekoak diren merkataritzagune handien eta gainerako saltokien azalera, ahal den neurrian banaketa arloan inor nagusitu ez dadin. Bestalde, baliospena egiteko, urtarrilaren 15eko 7/1996 Legeko 6. artikuluko 2. paragrafoko 2. lerroaldean araututakoaren arabera jokatu beharko da. Ondorio horietarako kontuan izango da baita frankiziako saltokien salmenta esparrua, baldin eskatzailea bada haien frankizia emaile juridikoa.

II. KAPITULUA
LIZENTZIAK EMATEKO PROZEDURA.

*6. artikulua.–* Hasiera.

1.– Prozedura interesdunak eskatuta hasiko da, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 70. artikuluan araututakoen araberako eskabidea egin ondoren.

2.– Eskabidea merkataritzan eskumena duen sailera zuzendu beharko da. Azaroaren 26ko 30/1992 Lege hartako 38.4 artikuluan jasotzen den edozein zentrotan aurkeztu ahal izango da eskaera.

3.– Eskabideekin batera aurkeztu beharko dira:

a) Lurzoruaren uneko edo etorkizuneko titulartasuna edo eskuragarritasuna egiaztatzen duen dokumentua.

b) Sozietatearen eraketako estatutuak eta eskritura, eta merkataritza baltzuak edo kooperatibak badira, merkataritza edo kooperatiba erregistroko orri pertsonalaren kopia osoa.

c) Azken hiru ekitaldietan Merkataritza Erregistroan ordaindutako urteko kontuen kopia. Ordainketa hori egin behar duten enpresek bakarrik aurkeztu beharko dute.

d) Ezarri edo handitu nahi den establezimenduaren deskribapen xehekatua eta oinarrizko proiektua. Jarri beharrekoak dira erabiliko dituen ikurrak, kokalekua, eraikiko den azalera osoa, eta jendearentzako salmenta esparrua, 2. artikuluaren arabera.

En los municipios de alta estacionalidad turística comprendidos en el anexo II la superficie de venta al público a que se refiere el párrafo anterior será de 1.500 $m^2$ y su volumen de población se multiplicará por dos a los efectos del cálculo de la demanda potencial comarcal.

4.– Al objeto de garantizar la libre concurrencia de oferta y demanda, el Departamento competente en materia de comercio, para dictar la resolución concediendo o denegando la licencia de gran establecimiento comercial, valorará especialmente, en los términos previstos en el párrafo 2.º del apartado 2 del artículo 6 de la Ley 7/1996, de 15 de enero, de Ordenación del Comercio Minorista, la superficie de venta al publico en grandes establecimientos comerciales y demás comercios de que sea titular, directa o indirectamente, en la comarca respectiva, el solicitante, a fin de evitar, en la medida de lo posible, posiciones de dominio en la distribución. A estos efectos se tendrá igualmente en cuenta la superficie de venta de aquellos comercios en régimen de franquicia respecto de los cuales el solicitante ostente la condición jurídica de franquiciador.

CAPÍTULO II
PROCEDIMIENTO DE OTORGAMIENTO DE LICENCIAS

*Artículo 6.–* Iniciación.

1.– El procedimiento se iniciará a instancia del interesado mediante solicitud ajustada a las previsiones del artículo 70 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2.– Dicha solicitud deberá ir dirigida al Departamento competente en materia de comercio y podrá ser presentada en cualesquiera de los centros indicados en el artículo 38.4 de la citada Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

3.– Las solicitudes deberán acompañarse de:

a) Documento acreditativo de la titularidad o disponibilidad presente o futura del suelo.

b) Estatutos y escritura de constitución de la sociedad y copia completa de su hoja personal del Registro Mercantil o de Cooperativas, cuando se trate de sociedades mercantiles o cooperativas.

c) Copia de las cuentas anuales depositadas en el Registro Mercantil correspondientes a los tres últimos ejercicios, en los supuestos de empresas que deban realizar dicho depósito.

d) Descripción detallada y Proyecto Básico del establecimiento que se quiera implantar o ampliar, haciendo constar la enseña o enseñas que utilizará, su emplazamiento, la superficie total a edificar y la superficie de venta al público de acuerdo con el artículo 2.º.

e) Komertzializatuko diren gaien deskribapena, merkataritzagune handiaren sektorea eta mota, bai ezarri edo handitu behar bada, bai jarduera aldatu behar bada.

f) Proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa eta udalerrian eta eskualdean izango duen gizarte eta ekonomia eragina jasotzen dituen merkatu ikerketa.

g) Oinplanoen (1:250 eskala), akotatuen, aurretiko bisten eta ebakiduren plano orokorrak, kokagunearena (1:10.000 eskala) eta aurreikusitako lur sail eta aparkalekuetarako sarbideenak (1:20.000 eskala). Hiru aletan aurkeztu beharko da dokumentazio hori guztia.

h) Proiektuak dakarren inbertsioaren estudioa eta inbertsioaren finantzaketa plana, bai norberaren baliabideei dagokienez eta bai besteren baliabideei dagokienez, baldin establezimenduak 1.000 metro koadrotik gorako jendearentzako salmenta esparrua badauka. Orobat, enpresaren hedapen plana eta funtzionamenduko lehenengo bost urterako sarrera eta gastuen aurreikuspenak eman behar dira.

i) Sortu asmo duten lanpostuen kopurua eta izaera adierazi behar dira.

j) Proiektua gauzatzeko egutegia.

4.– Eskatzaileak lizentzia eskatzen badu, eta eskatzen duen esparrua aukeratutako sektore eta establezimendu motarentzako eskualdean erabilgarri dagoen jendearentzako salmenta esparrua baino handiagoa bada, merkataritza gaietan aginpidea duen Sailak ebazpen bat emango du. Ebazpenean xehetasun hori adieraziko da, doakionak, gehienez ere bi hilabeteko epean, eskabidea erabilgarri dagoen azalerara egoki dezan.

*7. artikulua.*– Instrukzioa.

1.– Administrazio prozedurako instrukzioa, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko (Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea) 70. artikuluan arautuakoari jarraituz egingo da.

2.– Lizentzia eskabideari buruz loteslea ez den txostena egingo du merkataritzagune handia proiektatuta dagoen udalerriko Udalak. Udal horrek bi hilabeteko epean egin beharko du txostena, eta maiatzaren 27ko 7/1994 Legeko (Merkataritza Jardueraren Legea, azaroaren 10eko 7/2000 Legeak aldatua) 13. artikuluko 5. paragrafoan arautzako irizpideen arabera, udalari dagozkion aginpideak kontuan hartuta egingo du.

3.– Era berean, lehiaren defentsa arloan eskumena duen organoak ere lizentzia eskabidearen gaineko txostena egingo du. Txosten hori ez da loteslea izango. Bi hilabete igarota txostena eman ez badu, espedientea izapidetzen jarraitu ahal izango da.

4.– Jardundako guztiaren kontu emango zaio hurrengo artikuluan arautzako Merkataritzagune Handietarako Batzordeari, bi hilabeteko epean artikulu horretako 3. paragrafoko a) idatz-zatian adierazitako txostena eman dezan.

e) Descripción de los productos que se vayan a comercializar, indicación de la tipología y sector de gran establecimiento comercial, con ocasión tanto de la implantación y ampliación de aquél, como de la modificación de actividad.

f) Estudio de mercado en el que se recoja la viabilidad económica del proyecto y su impacto socioeconómico en el municipio y en la comarca respectivos.

g) Planos generales de las plantas (escala 1:250), acotados, alzados y secciones, así como de situación (escala 1:10.000), accesos a la parcela y aparcamiento previsto (escala 1:20.000). Toda esta documentación se deberá presentar por triplicado.

h) Estudio sobre la inversión que comporte el proyecto y el plan de financiación de la inversión, tanto en lo que se refiere a recursos propios como a recursos ajenos cuando se trate de establecimientos con superficie de venta al público superior a 1.000 metros cuadrados. Asimismo, se deberá aportar el plan de expansión de la empresa y las previsiones de gastos e ingresos para los cinco primeros años de funcionamiento.

i) Número y naturaleza de los puestos de trabajo que se pretende crear.

j) Calendario de ejecución del proyecto.

4.– Cuando el solicitante pretendiese una licencia afectante a una superficie de venta al público superior a la disponible en la respectiva comarca, según el sector y tipología elegidos, por el Departamento competente en materia de comercio se dictará resolución expresando dicha circunstancia, al efecto de que el interesado adapte, en el plazo máximo de dos meses, la solicitud instada a la superficie disponible.

*Artículo 7.*– Instrucción.

1.– La instrucción del procedimiento administrativo se ajusta a las previsiones de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2.– La solicitud de licencia será sometida a informe no vinculante del Ayuntamiento en cuya demarcación se proyecte el gran establecimiento comercial para que en el ámbito de sus competencias relacionadas con los criterios previstos en el apartado 5 del artículo 13 de la Ley 7/1994, de 27 de mayo, de la Actividad Comercial, modificada por la Ley 7/2000, de 10 de noviembre evacue el mismo en el plazo de dos meses.

3.– Asimismo, la solicitud de licencia será sometida a informe no vinculante del órgano competente en materia de defensa de la competencia. Transcurridos dos meses sin haber emitido el informe podrá proseguirse la tramitación del expediente.

4.– De todo lo actuado se dará cuenta a la Comisión de Grandes Establecimientos Comerciales prevista en el artículo siguiente, al objeto de que emita el informe a que se refiere el apartado 3, letra a) del mismo en el plazo de dos meses.

*8. artikulua.–* Ebazpena.

1.– Maiatzaren 27ko 7/1994 Legeko (Merkataritza Jardueraren Legea, azaroaren 10eko 7/2000 Legeak aldatua) 13. artikuluko 7. paragrafoan xedatutakoei jarraiki egingo da eta jakinaraziko da eskatutako lizentzia onartzeko edo ukatzeko ebazpena.

2.– Ebazpena arrazoitua izan behar da. Lizentziaz baliatzeko baldintza gisa, dekretu honetako 5. artikuluan jasotako irizpideei jarraituz, zenbait betebehar ezarri ahal izango dira ebazpenean. Eta, betiere, ematen den lizentziaren bidez jarduera gehienez zenbateko epean hasi behar den adieraziko du.

*9. artikulua.–* Merkataritzagune handi baterako lizentziaren tasa.

Merkataritzagune handiak ezartzeko lizentziaren tasa, merkataritzaguneak handitzeko lizentziarena edo merkataritzaguneetako jarduera aldatzeko lizentziarena, Azaroaren 10eko 7/2000 Legeak aldatu zuen maiatzaren 27ko 7/1994 Legeko (Merkataritza Jarduerarena) 13. artikuluko 8. paragrafoan, eta Lehenengo Xedapen Gehigarrian xedatutakoei jarraiki eskatuko da.

## III. KAPITULUA
## MERKATARITZAGUNE HANDIETARAKO BATZORDEA

*10. artikulua.–* Merkataritzagune Handietarako Batzordea.

1.– Merkataritzagune Handietarako Batzordea sortzen da.

2.– Merkataritzagune Handietarako Batzordea honako hauek osatzen dute:

a) Merkataritza eta Kontsumo sailburuordea. Lehendakari gisa jardungo du.

b) Merkataritza zuzendaria.

c) Batzordekide bat: EUDELeko ordezkari gisa jardungo du eta EUDELeko organo aginpidedunek izendatuko dute.

d) Batzordekide bat: hala dagokionean, jarduera ezartzea, handitzea edo aldatzea nahi duen Udalaren ordezkari gisa jardungo duena. Udal horretako organo aginpidedunak izendatuko du.

e) Batzordekide bat, Euskal Herriko Merkataritza eta Industria Ganberek izendatua.

f) Batzordekide bat: Merkataritzaren Enpresa Elkarteen ordezkari gisa jardungo du, eta elkarte horietako organo aginpidedunek izendatuko dute.

g) Batzordekide bat: Banaketa Enpresa Handien Elkarteko ordezkari gisa jardungo du, eta elkarte horretako organo aginpidedunek izendatuko du.

h) Batzordekide bat: Euskal Autonomia Erkidegoko sindikatu garrantzitsuenen ordezkari gisa jardungo du, eta sindikatuko organo aginpidedunek izendatuko dute.

*Artículo 8.–* Resolución.

1.– La resolución concediendo o denegando la licencia solicitada deberá ser dictada y notificada conforme a lo previsto en el apartado 7 del artículo 13 de la Ley 7/1994, de 27 de mayo, de la Actividad Comercial, modificada por la Ley 7/2000, de 10 de noviembre.

2.– La resolución deberá ser motivada, podrá condicionar el disfrute de la licencia que se otorgue al cumplimiento de determinadas condiciones que expresamente se establezcan en atención a los criterios recogidos en el artículo 5.º de este Decreto y expresará, en todo caso, el plazo máximo en que deberá iniciarse la actividad por medio de la licencia que se otorga.

*Artículo 9.–* Tasa de licencia de gran establecimiento comercial.

La tasa por autorización de implantación, ampliación o cambio de actividad de gran establecimiento comercial se exigirá conforme a lo previsto en el apartado 8 del artículo 13 y en la Disposición Adicional Primera de la Ley 7/1994, de 27 de mayo, de la Actividad Comercial, modificada por la Ley 7/2000, de 10 de noviembre.

## CAPÍTULO III
## COMISIÓN DE GRANDES ESTABLECIMIENTOS COMERCIALES

*Artículo 10.–* Comisión de Grandes Establecimientos Comerciales.

1.– Se crea la Comisión de Grandes Establecimientos Comerciales.

2.– La Comisión de Grandes Establecimientos Comerciales estará integrada por:

a) La Viceconsejera de Comercio y Consumo, que actuará como Presidenta.

b) El Director de Comercio.

c) Un vocal en representación de la Asociación de Municipios Vascos, designado por sus órganos competentes.

d) Un vocal, en su caso, en representación del Ayuntamiento en el que se pretenda la nueva implantación, ampliación o modificación de actividad, designado por el órgano competente del mismo.

e) Un vocal designado por las Cámaras de Comercio e Industria del País Vasco.

f) Un vocal en representación de las Asociaciones Empresariales de Comercio designado por sus órganos competentes.

g) Un vocal en representación de la Asociación más representativa de las Grandes Empresas de Distribución, designado por sus órganos competentes.

h) Un vocal en representación de los Sindicatos más representativos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, designado por sus órganos competentes.

i) Batzordekide bat: Kontsumitzaileen Federazioaren ordezkari gisa jardungo du, eta Federazioko organo aginpidedunek izendatuko dute.

3.– Merkataritzagune Handietarako Batzordeko betebeharrak honakoak izango dira:

a) Jarduera berriak ezarri eta gero, toki horietako merkataritza horniduretan eta azpiegituretan sor daitezkeen eraginei buruzko txostenak egitea. Batez ere saltoki txikientzat txarrak izan daitezkeen eraginak aztertzea hartu beharko da kontuan.

b) Merkataritza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari proposatzea merkataritza motaren eta sektoreen araberako eskualdeen parte-hartzearen ehunekoak aldatzeko, hala dagokionean.

c) Oro har, merkataritzagune handiak irekitzeko behar den berariazko merkataritza lizentziaren ordenamenduari dagozkion proposamenak egitea.

IV. KAPITULUA
IRAUNGITZEA, EZEZTATZEA ETA ALDATZEA.

*11. artikulua.–* Lizentziak iraungitzea, ezeztatzea eta aldatzea.

1.– Emandako lizentziak iraungi egingo dira, edo indarrik gabe geratuko dira, baldin eta betebeharrak betetzen ez badira. Era berean, lizentziak ezeztatu egingo dira lizentzia emateko arrazoia desagertu egin bada, edo lizentzia eman zenean sortuz gero, lizentzia ezeztatzeko moduko arrazoia izan balitz.

2.– Merkataritzagune handietarako lizentziak iraungitzeko edo ezeztatzeko ebazpenak, edo hala dagokionean, baldintzak aldatzeagatik emandako lizentziak aldatzeko ebazpenak, aldez aurretik administrazio bidetik onartu beharko dira. Prozedura horretan, lizentzien titularrei, bai eta egon daitezkeen gainerako interesdunei ere, audientzia eman beharko zaie. Administrazio aginpidedunak «lehiaren defentsarako» organo aginpidedunak emandako txostena eskatu ahal izango du.

XEDAPEN GEHIGARRIA

*Bakarra.–* Udalek merkataritza arloko sail aginpidedunari merkataritzagune berriak ezartzeko hirigintzako lizentzien eskabideak aurkeztu beharko dizkiote, bai eta txikizkako saltokiak handitzeko lizentzien eskabideak ere, baldin eta sortzen den azalera laurehun metro koadro baino gehiagokoa bada. Lizentzia merkataritzagunea handitzeko eskatzen denean, aldez aurretik gune horrek duen azalera kontuan hartu beharko da.

i) Un vocal en representación de las Federaciones de Consumidores, designado por sus órganos competentes.

3.– Las funciones de la Comisión de Grandes Establecimientos Comerciales serán las siguientes:

a) Emitir informe sobre los efectos que la nuevas implantaciones pudieran producir en la dotación e infraestructura comerciales de las áreas funcionales afectadas. Particularmente se valorará la incidencia negativa que en el pequeño comercio existente pudieran generar.

b) Proponer, en su caso, al Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de comercio, la modificación de los porcentajes establecidos para la participación en la demanda potencial comarcal global por tipologías y sectores.

c) Y en general, formular cuantas propuestas resulten oportunas en relación con la ordenación de la licencia comercial específica precisa para la apertura de los grandes establecimientos comerciales.

CAPÍTULO IV
CADUCIDAD, REVOCACIÓN Y MODIFICACIÓN

*Artículo 11.–* Caducidad, Revocación y modificación de licencias.

1.– Las licencias otorgadas caducarán y quedarán sin efecto si se incumplieren las condiciones a que estuvieren subordinadas y serán revocadas cuando desaparecieran las circunstancias que motivaron su otorgamiento o sobrevinieran otras que de haber existido a la sazón habrían justificado la denegación.

2.– Las resoluciones por virtud de las cuales se acuerde la caducidad o revocación, o en su caso la modificación por alteración de los términos de la licencia otorgada, de cualesquiera licencias de gran establecimiento comercial, deberán ser adoptadas en todo caso previo procedimiento administrativo en el que se dará audiencia al titular de la o las licencias respectivas así como a otros posibles interesados. La Administración competente podrá recabar de modo facultativo informe del órgano competente en materia de «defensa de la competencia».

DISPOSICIÓN ADICIONAL

*Única.–* Los Ayuntamientos pondrán en conocimiento del Departamento competente en materia de comercio las solicitudes de licencias urbanísticas referidas a nuevas implantaciones y ampliaciones de establecimientos comerciales dedicados al comercio minorista cuya superficie resultante supere los cuatrocientos metros cuadrados, teniendo presente la superficie preexistente en el caso de las ampliaciones.

AZKEN XEDAPENA

*Bakarra.–* Dekretu hau Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2001eko martxoaren 27an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

DISPOSICIÓN FINAL

*Única.–* El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 27 de marzo de 2001.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Industria, Comercio y Turismo,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

## I. ERANSKINA / *ANEXO I*

ESKUALDEAK / *COMARCAS*

ESKUALDEAK / *COMARCAS*

| I. ESKUALDEA / *COMARCA* | UDALERRIAK / *MUNICIPIOS* |
|---|---|
| Arabako Lautada / *Llanada Alavesa* | Alegría-Dulantzi<br>Arrazua-Ubarrundia<br>Asparrena<br>Barrundia<br>Elburgo / Burgelu<br>Iruña Oka / Iruña de Oca<br>Iruzaiz-Gauna<br>Agurain / Salvatierra<br>Donemiliaga / San Millán<br>Vitoria-Gasteiz<br>Zalduondo |
| Gorbeiabarrena / *Estribaciones del Gorbea* | Legutiano<br>Urkabustaiz<br>Zigoitia<br>Zuia |
| Arabako Ibarrak / *Valles Alaveses* | Armiñón<br>Añana<br>Berantevilla<br>Kuartango<br>Lantarón<br>Ribera Alta<br>Erribera Beitia / Ribera Baja<br>Valdegovía<br>Zambrana |

| II. ESKUALDEA / *COMARCA* | UDALERRIAK / *MUNICIPIOS* |
|---|---|
| Kantauri Arabarra / *Cantábrica Alavesa* | Amurrio<br>Artziniega<br>Aiara / Ayala<br>Llodio<br>Okondo<br>*Orduña |

| ESKUALDEA / *COMARCA* | UDALERRIAK / *MUNICIPIOS* |
|---|---|
| III. ESKUALDEA / *COMARCA* | UDALERRIAK / *MUNICIPIOS* |
| Arabako Errioxa / *Rioja Alavesa* | Mañueta / Baños de Ebro<br>Elciego<br>Bilar / Elvillar<br>Kripan<br>Labastida<br>Laguardia<br>Lantziego / Lanciego<br>Lapuebla de Labarca<br>Leza<br>Moreda de Álava<br>Navaridas<br>Oion-Oyón<br>Samaniego<br>Eskuernaga / Villabuena de Álava<br>Yécora |
| Arabako Mendialdea / *Montaña Alavesa* | Arraia-Maeztu<br>Bernedo<br>Kanpezu / Campezo<br>Harana / Valle de Arana<br>Lagrán<br>Peñacerrada-Urizaharra |
| IV. ESKUALDEA / *COMARCA* | UDALERRIAK / *MUNICIPIOS* |
| Ezkerraldea / *Margen Izquierda* | Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena<br>Alonsotegi<br>Barakaldo<br>Muskiz<br>Ortuella<br>Portugalete<br>Santurtzi<br>Sestao<br>Valle de Trápaga-Trapagaran<br>Zierbena |
| V. ESKUALDEA / *COMARCA* | UDALERRIAK / *MUNICIPIOS* |
| Eskumaldea / *Margen Derecha* | Berango<br>Erandio<br>Getxo<br>Leioa |
| VI. ESKUALDEA / *COMARCA* | UDALERRIAK / *MUNICIPIOS* |
| Bilbao eta Txorierri / *Bilbao y Txoriherri* | Bilbao<br>Derio<br>Larrabetzu<br>Lezama<br>Loiu<br>Sondika<br>Zamudio |

| VII. ESKUALDEA / *COMARCA* | UDALERRIAK / *MUNICIPIOS* |
|---|---|
| Ibaizabal | Arrigorriaga<br>Basauri<br>Etxebarri D.E/ Etxebarri, Ant.S.Est<br>Galdakao<br>Zaratamo |

| VIII. ESKUALDEA / *COMARCA* | UDALERRIAK / *MUNICIPIOS* |
|---|---|
| Durangaldea / *Duranguesado* | Abadiño<br>Amorebieta-Etxano<br>Atxondo<br>Bedia<br>Bérriz<br>Durango<br>Elorrio<br>Garay<br>Iurreta<br>Izurza<br>Lemoa<br>Mallabia<br>Mañaria |

| IX. ESKUALDEA / *COMARCA* | UDALERRIAK / *MUNICIPIOS* |
|---|---|
| Gernika-Bermeo | Ajangiz<br>Arratzu<br>Bermeo<br>Busturia<br>Ea<br>Elantxobe<br>Ereño<br>Errigoiti<br>Forua<br>Gautegiz Arteaga<br>Gernika-Lumo<br>Ibarrangelu<br>Kortezubi<br>Mendata<br>Morga<br>Mundaka<br>Murueta<br>Muxika<br>Nabarniz<br>Sukarrieta |

X. ESKUALDEA / *COMARCA*

Plentzia-Mungia

UDALERRIAK / *MUNICIPIOS*

Arrieta
Bakio
Barrika
Fruiz
Gamiz-Fika
Gatika
Górliz
Laukiz
Lemoiz
Maruri-Jatabe
Meñaka
Mungia
Plentzia
Sopelana
Urdúliz

XI. ESKUALDEA / *COMARCA*

Enkarterri / *Encartaciones*

UDALERRIAK / *MUNICIPIOS*

Arcentales
Balmaseda
Carranza
Galdames
Gordexola
Güeñes
Lanestosa
Sopuerta
Trucios-Turtzioz
Zalla

XII. ESKUALDEA */ COMARCA*

Markina-Ondarroa

UDALERRIAK / *MUNICIPIOS*

Amoroto
Aulesti
Berriatua
Etxebarria
Guizaburuaga
Ispaster
Lekeitio
Markina-Xemein
Mendexa
Munitibar-Arbatzegi Gerrikaitz
Ondarroa

| XIII. ESKUALDEA / *COMARCA* | UDALERRIAK / *MUNICIPIOS* |
|---|---|
| Arratia-Nerbioi / *Arratia-Nervión* | |
| | Arakaldo |
| | Arantzazu |
| | Areatza |
| | Arrankudiaga |
| | Artea |
| | Dima |
| | Igorre |
| | Orozko |
| | Otxandio |
| | Ubide |
| | Ugao-Miraballes |
| | Zeanuri |
| | Zeberio |

| XIV. ESKUALDEA / *COMARCA* | UDALERRIAK / *MUNICIPIOS* |
|---|---|
| Donostialdea / *Donostia-San Sebastián* | |
| | Andoain |
| | Astigarraga |
| | Donostia-San Sebastián |
| | Hernani |
| | Lasarte-Oria |
| | Lezo |
| | Oiartzun |
| | *Orio |
| | Pasaia |
| | Errenteria |
| | Urnieta |
| | Usurbil |

| XV. ESKUALDEA / *COMARCA* | UDALERRIAK / *MUNICIPIOS* |
|---|---|
| Bidasoa Beherea / *Bajo Bidasoa* | |
| | Hondarribia |
| | Irun |

| XVI. ESKUALDEA / *COMARCA* | UDALERRIAK / *MUNICIPIOS* |
|---|---|
| Goierri | |
| | Altzaga<br>Arama<br>Ataun<br>Beasain<br>Ezkio-Itsaso<br>Gabiria<br>Gaintza<br>Idiazabal<br>Itsasondo<br>Lazkao<br>Legazpi<br>*Legorreta<br>Mutiloa<br>Olaberria<br>Ordizia<br>Ormaiztegi<br>Segura<br>Urretxu<br>Zaldibia<br>Zegama<br>Zerain<br>Zumarraga |

| XVII. ESKUALDEA / *COMARCA* | UDALERRIAK / *MUNICIPIOS* |
|---|---|
| Urola Kosta / *Urola Costa* | |
| | Aia<br>Aizarnazabal<br>Azkoitia<br>Azpeitia<br>Beizama<br>Errezil<br>Getaria<br>Zarautz<br>Zestoa<br>Zumaia |

| XVIII. ESKUALDEA / *COMARCA* | UDALERRIAK / *MUNICIPIOS* |
|---|---|
| Debagoiena / *Alto Deba* | |
| | Antzuola<br>*Aramaio<br>Aretxabaleta<br>Arrasate / Mondragón<br>Bergara<br>Elgeta<br>Eskoriatza<br>Leintz-Gatzaga<br>Oñati |

| XIX. ESKUALDEA / *COMARCA* | UDALERRIAK / *MUNICIPIOS* |
|---|---|
| Debabarrena / *Bajo Deba* | |
| | Deba |
| | Eibar |
| | Elgoibar |
| | *Ermua |
| | Mendaro |
| | Mutriku |
| | Soraluze-Placencia de las Armas |
| | *Zaldibar |

| XX. ESKUALDEA / *COMARCA* | UDALERRIAK / *MUNICIPIOS* |
|---|---|
| Tolosaldea / *Tolosa* | |
| | Abaltzisketa |
| | Aduna |
| | Albiztur |
| | Alegia |
| | Alkiza |
| | Altzo |
| | Amezketa |
| | Anoeta |
| | Asteasu |
| | Baliarrain |
| | Belauntza |
| | Berastegi |
| | Berrobi |
| | Bidegoyan |
| | Elduain |
| | Gaztelu |
| | Hernialde |
| | Ibarra |
| | Ikaztegieta |
| | Irura |
| | Larraul |
| | Leaburu |
| | Lizartza |
| | Orendain |
| | Orexa |
| | Tolosa |
| | Villabona |
| | Zizurkil |

* Beste eskualderen bateko udalerriak sartu dira.
* *Inclusiones de municipios de otras comarcas.*

II. ERANSKINA / *ANEXO II*

URTAROTIK URTARORA TURISMOAN GORABEHERA HANDIAK DITUZTEN UDALERRIAK
*MUNICIPIOS CON ALTA TASA DE ESTACIONALIDAD*

| | |
|---|---|
| Lekeitio | %46,40 |
| Zarautz | %35,25 |
| Sopelana | %34,05 |
| Hondarribia | %30,11 |

Oharra: 7.000 biztanletik gorako udalerriak, udalerrian guztira dauden etxebizitzen %30 baino gehiago hutsik dauzkatena.

*Nota: Municipios de más de 7.000 habitantes con un porcentaje de viviendas vacías superior al 30% sobre el total de viviendas del municipio.*

# Agintariak eta Langileria

## Oposaketak eta Lehiaketak

### HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

**Zk-1704**

AGINDUA, 2001eko martxoaren 9koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena. Agindu honen bidez zehazten dira Bigarren Hezkuntzako, Lanbide Heziketako eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako ikastetxeetan hutsik dauden Bigarren Hezkuntzako irakasleen, Lanbide Heziketako irakasle teknikoen eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleen kidegoetako lanpostuak.

Bigarren Hezkuntzako irakasleen, Lanbide Heziketako irakasle teknikoen eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleen kidegoko irakasle funtzionarioen arteko lekualdatze lehiaketarako deia eginez Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak 2000ko urriaren 18an (urriaren 31ko EHAA) emandako Aginduaren bigarren oinarri-arauan ezarritakoa betetze aldera, aipatutako kidego horietan hutsik dauden lanpostuak zeintzuk diren jakinarazten da agindu honen bidez.

Ondorioz, hauxe

# Autoridades y Personal

## Oposiciones y Concursos

### DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**N°-1704**

ORDEN de 9 de marzo de 2001, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se determinan las vacantes de los Centros de Enseñanza Secundaria, Formación Profesional y Escuelas Oficiales de Idiomas correspondientes a los Cuerpos de Profesores de Enseñanza Secundaria, Profesores Técnicos de Formación Profesional y Profesores de Escuelas Oficiales de Idiomas.

En cumplimiento de lo dispuesto en la base segunda de la Orden de 18 de octubre de 2000, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco (BOPV de 31) por la que fué convocado Concurso de Traslados entre funcionarios docentes de los Cuerpos de Profesores de Enseñanza Secundaria, Profesores Técnicos de Formación Profesional así como del Cuerpo de Profesores de Escuelas Oficiales de Idiomas, se procede a la publicación de las vacantes ofertadas en dicho concurso.

En su virtud,